



Numerologia (eta VI)

Patxi Angulo*

Zenbakiak azterketa ez da egin historian zehar Matematikaren ikuspuntutik soilik. Alde erlijioso-filosofikoak ere maiz eraman du giza-zenbakiak eta bere erlazioak aztertzeraz. Horren adibidea dugu Pitagoras: bere sinismenean zenbakiak gauza guztien oinarri ziren; beste adibide bat Kabala (Kabalah, Qabalah, Cabbala edo Cabala) dugu: hebraitarrek zenbaki bana

**Fromistako San Martin eliza
erromanikoan dauden zenbakiei buruz
idatzita dagoena**

*“Gonbidatzen dut horretarako prest dagoena tenplua
suhertasunik gabe so egitera eta gero, esan dezala ez dela,
apika, bere bizitza osoan ikusi duen eraikin orekatuena,
sendoena, etereoena eta erosoena!*

*Ez dagoela eraikita gizakiaren, bere eskemen eta
itxaropenen neurri doi eta zehatzean; munduaz duen berezko
kontzeptioaren, filosofo alemanek Weltanschauung deitu
zuten kontzeptzio horren, proportzio doi eta zentzudunean eta
kosmo intuituarena ez den edozein egituratik urrun.*

*Hala ere, zera azalduko dut: San Martin, erudizioaren eta
ikerketa estetikoaren kontzeptzio historiko-kulturaletatik
haraindi, edozein gizabanakok bere geneetan daraman
eskema existentzialei egokitzen zaie, zeinak, egitura ukigarri
eta nabarian materializatzerakoan, berarekin identifikarazi
gaituzten eta gure buruaren, gure berehalako errealitatean
eta Unibertsoaren eskema handiei buruz dugun ideia
intuituaren parte izatera pasatzen duten.*

*Nabaritasun hori onartzen lagunduko duten zioetan
pentsatuz, uste dut esentziala eraikin osoari darion oreka
perfektua dela. Zifran oinarritutako eta egitura osoan ezin
hobeki dosifikatutako oreka, tenplua dodekalogo bihurtuz,
bisitariak ikusi ez, baina antzematen duen eta, antzeman
baino, gogoan sartzen zaiola sumatzen duen eta, etenik gabe,
jada identifikatutako egituraren parte izatera pasarazten
duen dodekalogo. Begira dezagun, bestela, bera oso-osorik
hartuta. Eta ardura gaitezen zenbatzen eta atzetik aurrera
neurtzen zenbakiaren lehenengo iturrietarako, erromesaldi
berri batean bezala.”*

egokitzen zieten letrei eta gero, hitz eta esaldi bakoitzari zegozkion zenbakiak kalkulatu egiten zituzten, emaitzaren arabera ondorioak ateratzeko. Ikuspuntu erlijioso-filosofikotik atera diren ideiek historiako garai guztietan iraun dute bizirik.

Erdi Aroan, erlijio ofizialaren ondo-ondoan, erlijio ezkutu bat (edo batzuk) garatu zen (edo ziren). Iniziatuak, tenplarioak, ka-

bala, harginak, Finis Terrae, Santiago-bidea... Hitz horiek guztiak dira ezkutuko erlijio horren lekuko. Finis Terrae-rako bidean, edo Santiago-bidean, edo lurra-
ren azken muturreraino ei zihon bidean erraz aurki genezake zenbakien azterketa erlijioso-filosofikoaren adibide garrantzitsuren bat. J. G. Atienza-ren “La Ruta Sagrada” izeneko liburuan, Fromistako San Martin eliza

erromanikoaren azpian dauden zenbakiei eta beren esanahiari buruz lerro hauen gainean dagoena irakur daiteke.

Azalpen horren ondoren, lehenengo hamabi zenbakiak zerrendatzen ditu atzetik aurrera, eraikinaren atal desberdinekin lotuz. Hona hemen hamabi zenbaki horien esanahia eta eraikinean duten isladaren zehaztasunak, nola ez, J. G. Atienzaren laguntzaz.

MATEMATIKAREN INGURUAN

12 MAGNITUDEA: Ez da oinarriko egitura kosmikoaren eske-man bakarrik aurkezten, baita unitatearekin batuta ere, hau da 13 bezala edo bere anizkoitzen bidez. 52 kapitelek (13 x 4) munduaren historia ezkuaren eta gizakiak, Heriotzaren eta ondorengo Berpizkundearen bidez, Ezagumenduranzko prozesuan eman beharko dituen urrats zehatzen eskema sinbolikoa ematen dute. Kanpoaldeko beste 26 kapitel (13 x 2) 13 leihoen alboan daude, zeinetatik argia eremu sakratuan barneratzen den.

11 MAGNITUDEA madarikatua eta bekatutsua dela diosku. Bestalde, osatu gabea da gizakiaren ikuspuntutik (10) eta ikuspuntu kosmikotik (12). Ez dugu 11 zenbakia San Martin elizan aurkituko.


10 ZIFRA: Osotasunaren zenbakia da; Kabalaren arabera, jainkozko jarioaren zenbakia, IO-Isis delakoaren seinalea eta Jainkoaren izenaren lehen letra hebraitarren alfabeto sakratuan. San Martinen 10 dira tenpluaren barruan dauden aldeetako zutabe-bitarteak eta horretan zehar fededunak absideko leihoetatik sartzen den argirantz aurreratu behar du. 10 zenbakiak bidea seinalatzen du; albo-nabeek estaltzen dute bidea absidearen korora iritsi arte.

9 ZENBAKIA osotasunaren (10) berehalakotasunera daraman jakintza gorenaren zifratzat hartu izan dela esaten zaigu. Eta aurrerago, San Martinen 9 zenbakia tenpluaren gailurretan, 9 teilatuetan, hau da, 3 dorreetan eta linternan, 3 absideetan, 2 gurutzeriaren besoetan eta 1 nabe nagusian. Puntu honetan, Atienzak azpimarratzen digu teilatuak, Jakituria bezala, ezin daitezkeela azpitik osorik ikus eta gainerako posizio batetik soilik ikus daitezkeela bere osotasunean.


8 ZENBAKIA linternaren aldeetan, absideetara pasatzeko dauden zortzi kapiteletan eta tenpluaren nabeak banatzen dituzten harroinetan dagoela irakur dezakegu. Beste esanahien artean, 8a infinituaren bertikaltasuna ($8 - \infty$) dela eta 8ak lau elementuak eta beren proiektzio kosmikoa adierazten dituela esaten digu.

7 ZENBAKIA: Karratuaren (lurtarraren) eta triangeluaren (zerurantz altxatzen den mendiaren) batasuna da eta fededunarengana absideko 7 leihoetatik iristen da. ZAIN letra, alfabeto hebraitarren zazpigarrena, Argiaren ikur kabalistikoa da, baita hartzeko gai den giza begiaren adierazpena ere. Zazpi dira zorionbide islamiarraren estadioak eta zazpi dira San Martinen barneko eta kanpoko mailak ere. Barnean, esaterako, oinarriak, zutabeak, kapitelak eta beheak, zeharkako arkuteriak, goiko kapitelak, gantgetako arkuteriak eta linternaren kupula daude.

6 ZENBAKIAren propietate aritmetikoak aipatzen ditu liburuak $-1 + 2 + 3 = 1 \times 2 \times 3 = 6-$; hori zela eta, matematikariak, teologoak eta okultistak bat etorri ziren magnitude bereziki esanguratsua zela esaterakoan. Martinez de Pasqually-k Intentzio, Borondate eta Hitz kontzeptuen batura deitu zion; Euklidesez zenbaki perfektua (zati-tzaileen baturaren berdina) eta S. Ambrosio-k harmonia perfektuaren sinboloa dela zioten; kabalistek seigarren *sefira*, TIFERET, edertasuna, adierazten zuela uste zutelarik. Liburu sakratuetan Edertasuna eta harmonia Krezio egunak 6 izatean isladatzen dira. Horrek baieztatzen du 6 direla, Jainkotasunaren ulerkuntza erdiesteko, Ezagumenduak iragan behar dituen estadioak. San Martin elizan 6 dira, hain zuzen ere, sartaldeko atetik absideraino




Fromistako San Martin elizaren barnealdea.



Eliza barneko 52 kapiteletako bat.

tenpluaren zutabe-bitarteak, Eguzkia sartzen den unetik Sor-tze Sakratura 6 etapatan zehar ibili behar den bide inizatikoaren ideia baieztatuz. Berezitasun baten egiaztatzen du egitura horren intentzioa: iparreko eta hegoko



San Martin elizak dituen 315 modiloietako bat.



Abside eta linternako teilatuak, modiloiek apaintzen dutelarik.

Absidetako 7 leihoak (ezker-eskuineko alboetakoak ez dira ikusten).



ateak, tenplu kristauetan irteera-ateak direnak, bigarren eta hirugarren zutabe-bitartean kokaturik daude, hurrenez hurren, jarraitzailea aipatu estadioetan dagoenean, kontestu monastikoetan botoak, heziketa inizatiko-irteteko aukera sinbolizatuz, hurrengoetan egin ezin izango duena.

berean YOD hebraitarra, alfabeto sakratuaren 10. letra, eta GAMMA grekoa, GHIMEL, segida kabalistikoaren 3. soinua, da. Esanahi bikoitzak, txorien lengoaiaren itzaletatik, Jainkoa Gizakiaren aurrean BAT eta osoa (10) eta TRINA bezala aurkezten dela testifikatzen du: inimizioaren bidez soilik uler daitezkeen misterio garrantzitsua —baina

5 ZENBAKIAren eskema pentagrama da. Pentagrama gizakiaren ikurra da, baina magiaren munduan, Akerraren ikur diaboliko bihur daiteke. Arkitekturen, Erdi Aroaren lehenengo urteetako tenplu kristau ugarien oinarriko eskema izan zen. Are gehiago, Moessel arkitektoaren arabera, basilika kristauaren proiektio ezkutua egituratzen den txantiloia da. Fromistan pentagrama zehatz-mehatz agertzen da: goiko erpina kupula erdiko absidetik banatzen duen mugan eta behekoa dorreen ardatzen oinetan.

4 ZENBAKIA da edozein eraikinetan argiroen agertzen dena 4 aldeak, alegia. Mundutarraren adierazpen gisa, ohizko 4 elementuak, lau puntu kardinalak; horren arabera eraikitzen da egitura sakratua, absidea sortaldean duelarik.

3 ZENBAKIA esentzialki kosmikoa eta sakratua da, jainkozko Hirutasunaren betetasuna eta bere izatearen distira adierazten baititu. Halaber, tridimensionalitatearen kintaesentzia haragitzen du eta horren gainean gizakia bere baldintzetatik altxa daiteke eboluziozko hurrengo estadioa erdiesteko. Hartzen duen itxura, Y, aldi

leku guztietan era askotan adierazita dagoena— identifikatuz, aldi berean, Unibertsoa ulertzeko dugun era (hiru dimentsio-koa), ageriko Denboraren zentzua —iragana, BETIEREKO PRESENTEA eta etorkizuna— eta Trimurti dibinoa, zeinean eite bat sortzailea, beste bat berreroslea eta hirugarrena inizatikoak baitira: ezagumendu-iturria, kabalak hirugarren sefirarekin identifikatzen duen jakituria goren horren jatorria, BINA Adimenarekin, alegia. Fromistan, Hirutasun hori erdiko absidearen 3 leihoetan, tenpluaren 3 sarreretan, 3 nabeetan ageri da, baina, batik bat, linterna eta bi dorreen konjuntzioan, tenpluaren 3 gailurrak osatuz. Baina, horien barne ditugu BITASUNA —2 zenbakia— eta BATASUNA, beren elementuak bildurik edo banaturik ikusten ditugun: bi dorre zilindriko berdinak, lirain eta femenino, eta linterna oktagonalean bere altuerakoa, eraikin-multzoaren gune bakarti eta nagusia, multzoaren koroa —KETTER— eta multzo horrek sakratutik duen guztiaren esentzia, xede nabarmena izaki zentzu sakon bat ematea zenbaki eta zifrari, berehalako erakusgarri diren heinean matematika sakratu batenak, zeina, maila jakin batzuetan, infinitutasun kosmikoari zentzua emateko gai den disziplina bakarria baita.

Horra hor, eraikin bakar batean, Fromistako San Martin elizan, aurki daitezkeen ezkutuko esanahiak; adibide hori, gainera, ez da bakarria zenbakien esanahi ezkutua bilatu nahi duenarentzat. Bestalde, Santiago-bidea egin nahi dutenei gomendatzen diet liburua, bidearen beste ikuspuntu bat ezagutzeko aproposa da eta.

* Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea.